



NAFARROAKO Aldizkari Ofiziala

OGASUNEKO TEKNIKARIEN OPOSIZIOA

2013eko 222. Nafarroako Aldizkari Ofizialaren separata, azaroaren 18koa

DEIALDIA, Funtzio Publikoaren zuzendari nagusiaren urriaren 23ko 2348/2013 Ebazpenaren bidez onetsia, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko Ogasuneko teknikari izateko lanpostu batzuk oposizio bidez betetzeko. Lanpostuak Funtzio Publikoaren zuzendari nagusiaren urriaren 15eko 2272/2013 Ebazpenaren bidez hamaika lanpostu huts betetzeko onetsitako lekualdatze lehiaketaren bidez betetzen ez direnak izanen dira, tramitatzen ari baita.

Funtzio Publikoaren zuzendari nagusiak, urriaren 23ko 2348/2013 Ebazpenaren bidez, deialdi bat onetsi du Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko Ogasuneko teknikari izateko urriaren 15eko 2272/2013 Ebazpenak deitutako lekualdatze lehiaketaren bidez betetzen ez diren lanpostuak oposizio bidez betetzeko. Tramitatzen ari den lekualdatze horren bidez 11 lanpostu huts bete nahi dira.

Hautapen prozesua honako hauetan xedatutakoari jarraikiz eginen da: Nafarroako Administrazio Publikoaren zerbitzuko Langileen Estatutuaren Testu Bategina, abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsia, aipatutako estatutua garatu eta gauzatzeko Sarrera Erregelamendua, gainerako aplikazio arauak eta deialdi honen oinarriak.

OINARRIAK

1.–Deialdiaren xedea.

1.1. Deialdi honen xedea da A mailako Ogasuneko teknikari izateko lanpostu batzuk oposizio bidez betetzea, aipatutako lekualdatze lehiaketaren bidez betetzen ez direnak. Txanda irekiaren eta igoera txandaren artean banatuko dira, honako formula honi jarraituz: lehendabiziko lanpostua txanda irekiari esleituko zaio, bigarrena, berriz, igoera txandari, eta, hirugarrenetik aurrera, bakoitiak igoera txandari eta bikoitiak txanda irekiari.

1.2. Igoerako txandari dagozkion lanpostuen %50 erreserba txandan parte hartzen duten Nafarroako Ogasuneko kudeatzaile eta ikertzaile laguntzaileen lanpostuen titularren berariazko txandarako gordeko dira, 2007ko ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu

Orokorrei buruzko abenduaren 27ko 17/2006 Foru Legearen seigarren xedapen gehigarrian xedaturikoarekin bat.

1.3. Nafarroako Ogasuneko kudeatzaile eta ikertzaile laguntzaileen lanpostuen titularren berariazko igoera txandan gehiago badira probak gaintzen dituzten izangaiak txanda horretarako gorde diren lanpostu hutsak baino, probak gaintu bai baino lanposturik lortzen ez dutenek ezin izanen dituzte aukeratu igoera txanda orokorreko beste lanpostu hutsak, ez eta txanda irekiko lanpostu hutsak ere.

Berariazko igoera txanda horretan erreserburiko lanpostuetako batzuk betetzen ez badira, igoera txanda orokorrekoei gehituko zaizkie, lehenengoz, eta gero txanda irekikoei.

Bestalde, igoera txanda orokorrean nahiz txanda irekian lanpostu hutsak geratzen badira txanda horietako izangaiak ez dutelako lortu hautaprobak gaintzeko gutxieneko puntuazioa, lanpostu huts horiek gehitu ahalko zaizkie Nafarroako Ogasuneko kudeatzaile eta ikertzaile laguntzaile lanpostuen titularrentzako erreserburiko igoera txanda berariazkorako hasiera batean ezarritako lanpostuen kopuruari.

–Lanpostu hutsak txanda irekian: kasu honetan, lehenengo eta behin, oposizioa gaintu eta beren txanda horretan lanposturik lortzen ez duten igoera txanda orokorreko izangaiak beteko dituzte lanpostu huts horiek eta, hori egin ondoren, lanpostu hutsik geratzen bada, berariazko igoera txandara gehituko dira.

–Lanpostu hutsak igoera txanda orokorrean: lehenengo eta behin, berariazko igoera txandako kopuruari gehituko zaizkie eta, txanda horretan gaintzen duten izangaien kopurua lanpostu hutsena baino txikiagoa bada, soberako lanpostuak txanda irekikoei gehituko zaizkie.

1.4. Bestalde, igoera txanda orokorrean gainditzen duten izangaien kopurua hutsik dauden lanpostuena baino handiagoa bada, txanda horretan gainditu bai baina lanposturik eskuratzen ez dutenek aukera izanen dute txanda irekiko lanpostu hutsak eskuratzeko, txanda horretako izangaiekin lehian eta eskuratutako azken puntuazioaren arabera.

Era berean, txanda irekiko lanpostuak eskuratzeko aukera izanen dute, aurreko leerroaldean adierazitako moduan, deialdi honetako 7.2. oinarriari agiriak aurkezteko ezartzen den epea bukatzen denean deialdiko 2.1.2 oinarriko betebeharrak berariazkoak betetzen ez dituzten igoera txanda orokorreko izangaiek.

1.5. Lanpostuen ordainsariak hauek izanen dira: uztailaren 4ko 158/1984 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Ordainsariei buruzko Behin-behineko Erregelamenduan A mailarentzat oro har ezarritakoak eta aplikatu daitezkeen gainerako xedapenetan kasu bakoitzerako ezartzen direnak.

2.–Betebeharrak.

2.1. Oposizioan onartuak izateko, izangaiek, eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunean eta agiriak aurkezteko epea bukatzen denetik (deialdiaren 7.2 atalean adierazia) lanpostuaren jabetza hartu arte, baldintza hauek bete beharko dituzte:

2.1.1. Izangai guztiek bete beharreko baldintzak.

a) Espainiako nazionalitatea izatea.

b) Hamasei urte beteta izatea eta erretiroa nahitaez hartzeko gehieneko adina gainditua ez izatea.

c) Lizentziadun, ingeniari, arkitekto edo graduako titulua edo baliokidea izatea, edo eskaerak aurkezteko epea bukatzen den egunean titulu hori eskuratzeko moduan egotea.

Atzerrian lortutako titulua badira, homologazioaren egiaztatgiri eduki beharko da.

d) Bete behar dituen eginkizunetan aritzeko adinako gaitasun fisiko eta psikikoa izatea.

e) Eginkizun publikoetan aritzeko ezgaitua edo gabetua ez egotea eta administrazio publikoren baten zerbitzutik bereizia ez izatea.

2.1.2. Igoera txanda orokorreko izangaiek bete beharreko baldintza berariazkoak.

Txanda horretako izangaiek, aurreko atalean adierazitako betebeharez gain, hauek ere bete beharko dituzte:

a) Nafarroako edozein administrazio publikotako langile finkoa izatea, edo Nafarroako Foru Komunitateari transferitutako Justizia Administrazioaren zerbitzuei atxikitako langile finkoa, eta abiapuntu lanpostuan borondatezko edo nahitaezko eszedentzian ez egotea.

b) Deialdiko lanpostu hutsen maila berekoa edo apalagokoa izatea.

c) Administrazio publikoetan bost urteko antzintasun aitortua izatea, Nafarroako Polizia Kidegoetako kideen kasuan izan ezik, horiek frogatu beharko baitute zortzi urtez benetan eman dituztela zerbitzuak kidego horietan.

Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Estatutuaren zortzigarren xedapen gehigarrian ezarri dena aplikatuz, igoera txandan parte hartzeko gainerako baldintzak betetzen dituzten Nafarroako Parlamentuko funtzionarioek ere txanda horretan parte hartzen ahalko dute.

2.1.3. 2007. urteko ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 27ko 17/2006 Foru Legearen seigarren xedapen gehigarrian aipatzen den igoera txandako izangaietako berariazko betebeharrak.

Nafarroako Ogasuneko kudeatzaile eta ikertzaile laguntzaileen lanpostu baterako izendatuak izan diren funtzionarioek bakarrik hartzen ahalko dute parte igoerako txanda honetan, oinarri honetako 2.1.1 eta 2.1.2 atalean aipatzen diren betebeharrak betetzen badituzte.

2.2. Deialdiaren 3.3 oinarriaren laugarren puntuan aipatzen den salbuespena salbuespen, izendatuak izateko proposatzen diren izangaiek deialdiaren 7.2 atalean ezarritako epean eta moduan frogatu beharko dituzte betebeharrak horiek.

3.–Eskabideak aurkeztea eta tasak ordaintzea.

3.1. Tasak.

Azterketa eskubideengatik eta espediente formalizatzeak, 41,60 euroko tasa ordaindu beharko da. Azterketa eskubideengatik tasak ordaindu ez izana edo horretatik salbuesita egotea ez justifikatzeak eskaerak aurkezteko epearen barruan ekarriko du izangaia baztertzea. Azterketa eskubideen tasa ordaintzeak ez du inola ere aldatuko eskabidea behar den epean eta moduan aurkeztu beharra.

Honako hauek ez dute tasarik ordaindu beharko:

a) %33ko edo hortik gorako desgaitasun aitortua duten pertsonak.

b) Deialdia argitaratu aurretik hilabetez gutxienez lan eskatzaile gisa inskribaturik egon diren pertsonak. Salbuespen hori aplikatzeko baldintza izanen da inskribaturik egon diren bitartean eskaini zaizkien lan egokiei uko egin ez izatea, ezta lanbide sustapen, prestakuntza edo aldaketarako ekintzetan parte hartzeari ere, justifikatutako kasuetan izan ezik, eta, horrez gainera, lanbide arteko gutxieneko soldatetik gorakoa den diru-sarrerarik ez izatea hilabetean.

Lan eskatzailea dela frogatzeko, enplegu bulegoak emandako agiria aurkeztu beharko du. Bertan, lan eskatzaile gisa inskribatu zeneko data agertuko da eta, orobat, adieraziko da inskribaturik egon den bitartean ez diola uko egin handik eskaintako inolako lan egokiri, ezta lanbide sustapen, prestakuntza edo moldaketarako ekintzetan parte hartzeari ere, justifikatutako kasuetan izan ezik.

Interesdunaren aitopenearen bidez frogatuko da ez duela hila-betero lanbide arteko gutxieneko soldatetik gorako diru-sarrerarik. Aitorpen eredia Nafarroako Gobernuko Informazio Bulegoan eskuratzeko ahalgo da edo, bestela, Internet bidez, arestian emandako helbidean.

Sistema hauetakoren bat erabiliz ordaintzen ahalko da tasa:

–Telematika bidez, 3.2 oinarriko A.1 letran adierazitako moduan.

–Behar den bezala betetako ordainketa-gutunaren bidez, Nafarroako Foru Komunitateko banku entitateetan ordaintzeko. Interneten deialdiari buruz egiten den aipamenean, www.navarra.es helbidean, “Enplegu Publikoa” atalean, ordainketa-gutunaren eredia dago.

3.2. Eskaerak.

Eskabideak deialdi honen eranskinetako ereduari lotu behar zaizkio eta, haietan, izangaiek adierazi beharko dute eskatutako baldintza guztiak betetzen dituztela. Eskabide eredia Interneten bidez ere eskuratzeko ahalgo da, www.navarra.es helbidean, bai hori argitaratzen duen aldizkari ofizialetik, bai “Enplegu Publikoa” atalean deialdiari buruz dagoen aiputik abiatuta.

Deialdian parte hartzeko eskabideak deialdia Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita hogeita hamar egun naturaleko epean aurkeztu beharko dira. Eskabideak aurkezteko epea luzaezina da.

Eskabideak aurkezteko, baliabide hauetako edozein erabili daiteke:

A) Bide telematikoa.

A.1. Internet bidez, deialdi honen fitxan dagoen “Inskripzioa eta ordainketa telematikoa” izeneko estekan sartuta, Nafarroako Atariaren “Enplegu publikoa” atalean, www.navarra.es helbidean.

Aurkezteko eta ordaintzeko modu hori ezin izanen da erabili tasak ordaintzetik salbuesten duen frogagiria aurkeztu behar denean, ezta 3.3 oinarriko Bi eta Hiru zenbakietan aipatzen diren kasuetan ere.

A.2. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren Erregistro Orokor Elektronikoan, Nafarroako Gobernuaren web ataritik abiatuta.

B) Aurrez aurre.

Deialdian parte hartzeko eskabideak Nafarroako Gobernuko Erregistro Orokorrean (Karlos III.aren etorbidea, 2, 31002 Iruña) edo Nafarroako Gobernuaren gainerako erregistro bulegoetako

edozeinetan aurkeztu beharko dira, edo, bestela, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan adierazi diren bideetako bat erabiliz.

Eskabidea posta bulegoan aurkeztea aukeratuz gero, gutun-azalak irekita egon beharko du, postetxeko langileek data eta zigilua jar diezazkieten, ziurtatu eta Nafarroako Gobernuaren Erregistro Orokorrera (Karlo III.aren etorbidea, 2, 31002 Iruña) igorri aurretik.

3.3. Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa.

Bat.–Espedientea formalizatzeko eta azterketa eskubideengatik tasa ordaindu izanaren frogagiria.

Bi.–I. bis eranskina (taldea hautatzea) behar bezala bete eta sinatuta. Bertan izangaiek hautaprobak Lehenengo taldean edo Bigarren taldean egin nahi dituen aukeratuko du.

Hiru.–Deialdian igoera txandan parte hartu nahi duten izangaiek, lehengoaz gainera, deialdi honen 2.1.2 oinarrian jasotzen diren betebeharrak betetzen dituztela frogatzen duen agiria gehitu beharko diote eskabideari, baldin eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioa ez den Nafarroako beste administrazio publikoren bateko langile finkoak edo Nafarroako Foru Komunitateari eskualdatutako Justizia Administrazioako zerbitzuei atxikitako langile finkoak badira.

Lau.–3.1. oinarriaren a) atalean (tasak salbuestea) eta 8. oinarrian (lanpostuak aukeratzeko lehentasuna) xedaturikoari dagokionez eta, halaber, denboren eta baliabideen egokitzapena eskatzeko, %33ko edo hortik gorako desgaitasuna duten izangaiek hori agiri hauekariko baten jatorrizkoaren edo kopia konpultsatua bidez frogatu beharko dute:

–IMERSOK edo autonomia erkidegoan eskumena duen organoak luzatutako ziurtagiria.

–Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalaren ebazpena, prestazio bat jasotzeko eskubidea onartzen diona hauekaren bat izateagatik: ezintasun iraunkor osoa, erabateko ezintasun iraunkorra edo baliabezintasun handia.

Desgaitasuna duten izangaiek probak egiteko denboren eta baliabideen egokitzapenak eskatzeko, hala adierazi beharko dute eskabidean, eta aparteko orri batean azaldu beharko dute nolako desgaitasuna duten eta zein egokitzapen eskatzen duten. Interesdunen eskura dago egokitzapenak eskatzeko eredu bat www.navarra.es helbidean, deialdiaren aipuan, "Enplegu Publikoa" atalean, hain zuzen.

4.–Izangaiei onarpena eta erreklamazioak.

4.1. Eskaerak aurkezteko epea bukatu, Funtzio Publikoaren zuzendari nagusiak ebazpena emanen du izangai onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onesteko, eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara dadila aginduko du.

4.2. Behin-behineko zerrenda Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita, izangai baztertuek hamar egun balioduneko epea izanen dute erreklamazioak aurkezteko eta, akatsik egin badute, haiek zuzentzeko.

4.3. Erreklamazioetarako epea bukatutakoan eta horiek ebatzita, Funtzio Publikoaren zuzendari nagusiak onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda onesten duen ebazpena emanen du, eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara dadila aginduko.

4.4. Izangaiei ez zaizkie azterketa egiteko eskubideak itzuliko, baldin eta beraiei egotzitako arrazoiengatik baztertzen badira.

5.–Kalifikazio epaimahaia.

5.1. Kalifikazio epaimahaia honako kide hauek osatuko dute:

–Batzordeburua: Idoia Nieves Nuin andrea, Nafarroako Zerga Ogasuneko zuzendari kudeatzailea.

–Ordezkoa: Manuel Arana Soret jauna, Nafarroako Zerga Ogasunaren Plangintza eta Kontrolerako zuzendaria.

–Epaimahaiko kidea: Rafael Santamaría Aquilué jauna, Nafarroako Unibertsitate Publikoan Finantza Ekonomiako eta Kontabilitateko katedraduna.

–Ordezkoa: José Alberto Bayo Moriones jauna, Nafarroako Unibertsitate Publikoko Enpresen Antolaketako katedraduna.

–Epaimahaiko kidea: Rafael Lara González jauna, Nafarroako Unibertsitate Publikoan Merkataritza Zuzenbideko irakasle titularra.

–Ordezkoa: José Francisco Alenza García jauna, Nafarroako Unibertsitate Publikoan Zuzenbide Administrazio boko irakasle titularra.

–Epaimahaiko kidea: langileen ordezkari bat, Nafarroako Zerga Ogasuna erakunde autonomoko langileen batzordeak proposaturik izendatua.

–Ordezkoa: langileen ordezkari bat, Nafarroako Zerga Ogasuna erakunde autonomoko langileen batzordeak proposaturik izendatua.

–Epaimahaiko kidea: Begoña Lerga Iturbide andrea, Nafarroako Zerga Ogasunari atxikitako Ogasuneko teknikaria.

–Ordezkoa: Celia De Vicente Semberoz andrea, Nafarroako Zerga Ogasunari atxikitako Ogasuneko teknikaria.

–Epaimahaiko kidea: Teresa Sansa Villacampa andrea, Nafarroako Zerga Ogasunari atxikitako Ogasuneko teknikaria.

–Ordezkoa: Cristina Arce Urriza andrea, Nafarroako Zerga Ogasunari atxikitako Ogasuneko teknikaria.

–Batzordekide-idazkaria: Cristina Lizarbe Bravo andrea, Nafarroako Zerga Ogasunari atxikitako Ogasuneko teknikaria.

–Ordezkoa: Adolfo Morales Gordo jauna, Administrazio Publiko teknikaria (arlo juridikoa), Nafarroako Zerga Ogasunari atxikia.

Epaimahaia hautaprobak hasi baino lehen eratu da.

5.2. Epaimahaia ezin izanen da eratu, ezta aritu ere, kideen gehiengo osoa bertan izan gabe.

Kide anitzeko organoaren eraketak eta jardunak balio izateko, mahaiburuak eta mahaikide-idazkariak edo haien ordezkoez bertan egon beharko dute.

5.3. Epaimahaiko kideek ez dute parte hartuko, eta organo dei egileari horren berri emanen diote, baldin eta Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen parte ez hartzeko aipatzen diren egoeretakoren batean badaude.

Izangaiek, halaber, zilegi dute epaimahaikideak errefusatzeko, egoera horietako bat gertatzen denean.

5.4. Epaimahaia gehiengo erabakiko ditu deialdiaren oinarriak ulertu eta aplikatzeko moduen gainean sortzen diren arazo guztiak.

5.5. Epaimahaia aholkulari adituak laguntza izan dezake, proba batzuetan nahiz guztietan. Aholkulari horiek beren espezialitate teknikoetan baizik ez dira arituko eta haietan bakarrik emanen diote laguntza epaimahaiari.

6.–Oposizioaren nondik norakoak.

6.1. Oposizioa 2014ko irailean hasiko da. Onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda onesten duen ebazpenean bertan zehaztuko da ariketak non, noiz eta zer ordutan hasiko diren.

Ondoren, epaimahaia gainerako probak egiteko iragarkiak argitaratuko ditu, araz egin behar den moduan.

Ondoren aipatzen dira oposizioa ariketak. Aipatzen den hurrenkeran eta deialdiaren eranskineko programan adierazten diren gaien gainean izanen dira, izangaiek Lehenengo edo Bigarren Taldea aukeratzeko duten.

Gai guztiak oposizioa deialdia argitaratzean kasuan kasuko aldizkari ofizialetan argitaraturiko araudiaren arabera eskatuko dira.

Lehenengo ariketa.–Bi zati izanen ditu:

–Lehenengo zatia: berdina izanen da bi taldeetarako eta epaimahaia proposaturiko kontabilitateko kasu bat edo gehiago ebatzi beharko dira, 5 orduan gehienez, deialdiaren eranskineko programan ageri diren gaien gainean.

–Bigarren zatia:

Lehenengo taldea: gehienez ere hiru orduz matematika finantzarioko buruketa bat edo gehiago ebatzi beharko dira, eranskineko programan aipatzen diren gaien gainean.

Proba egiteko, epaimahaiak bidezko baderitzo, lehiatzaileek finantzen eta logaritmoen taulak eta finantzetakoak ez diren kalkulagailuak erabiltzen ahalko dituzte.

Bigarren taldea: irizpen juridiko bat egin beharko da epaimahaiak programan berariaz aipatzen diren gaien gainean ematen dituen kasuei buruz.

Proba horretarako gehienez ere hiru ordu eman dira. Lehiatzaileek paperezko legezko testuak erabiltzen ahalko dituzte, baldin eta horietan bakar-bakarrik zuzenbide positiboko edukiak badaude. Horretarako, aurkibideak edo oin-oharrak, beste arau batzuen aipamenak badituzte edo beste arau batzuetara igortzen badute, ez dira eduki gehigarritzat joko. Haatik, jurisprudentzia edo doktrina administratiboaren aipamenak, doktrinaren iruzkinak edo lehiatzailearen ohar pertsonalak dauzkaten bilduma edo testuak ez dira onartuko. Epaimahaiak noiznahi ere aukera izanen du izangaien testuak berrikusi eta kentzeko, lerroalde honetan xedaturikoari aurka egiten badiote.

Bigarren ariketa.—Teorikoa izanen da eta, taldea zein den, hauxe izanen da gaia:

—Lehenengo taldea: hamasei galdera erantzun beharko dira idatziz, bost orduan gehienez, Ekonomia Orokorraren, Enpresaren Ekonomiaren eta Merkataritza Zuzenbidearen programan sartutako gaiei buruz. Galderek ez dute zertan izanik gai-multzoetako epigrafeak bezalakoak.

—Bigarren taldea: hamasei galdera erantzun beharko dira idatziz, bost orduan gehienez, Zuzenbide Zibilarren, Merkataritza Zuzenbidearen eta Enpresaren Ekonomiaren programan sartutako gaiei buruz. Galderek ez dute zertan izanik gai-multzoetako epigrafeak bezalakoak.

Hirugarren ariketa.—Teorikoa izanen da, bera bi taldeentzat. Bi zati edukiko ditu:

—Lehenengo zatian bi gai garatu beharko dira, zozketaz aukeratuak, Konstituzio eta Administrazio Zuzenbidearen programan sartutako artetik. Idatziz egin beharko da, gehienez ere lau orduz.

—Bigarren zatian bi gai garatu beharko dira, zozketaz aukeratuak, bata Ogasun Publikoaren programan eta bestea Espainiako Finantza Sistemaren programan sartutako artetik. Idatziz egin beharko da, gehienez ere lau orduz.

Laugarren ariketa.—Teorikoa izanen da, bera bi taldeentzat. Bi zati edukiko ditu:

—Lehenengo zatian bi gai garatu beharko dira, zozketaz aukeratuak, Nafarroako Finantza eta Zerga Zuzenbidearen programaren Zati Orokorrean eta Tributu arloko Prozeduren atalean sartutako artetik. Idatziz egin beharko da, gehienez ere lau orduz.

—Eta bigarrenean, 20 galdera erantzun behar dira, idatziz, gehienez lau orduan, Nafarroako Finantza eta Zerga Zuzenbidearen programaren zati berezian sartutako gaiei buruz. Galderek ez dute zertan izanik gai-multzoetako epigrafeak bezalakoak.

Bosgarren ariketa.—Praktikoa izanen da, bera bi taldeentzat. Bi zati edukiko ditu:

—Lehenengoan, gehienez ere lau orduz, tributu likidazioen kasu bat edo gehiago ebatzi beharko dira. Haien subjektu pasiboa pertsona juridiko bat izanen da.

—Bigarren zatian tributu likidazioen kasu bat edo gehiago ebatzi beharko dira, gehienez ere lau orduz. Haien subjektu pasiboa pertsona fisiko bat izanen da.

Bosgarren ariketan bi taldeetako izangaiak egin beharreko likidazioak epaimahaiak ematen dituen kasuen gainean egiten dituzte. Lehiatzaileek paperezko legezko testuak erabiltzen ahalko dituzte, baldin eta horietan bakar-bakarrik zuzenbide positiboko edukiak badaude. Horretarako, aurkibideak edo oin-oharrak, beste arau batzuen aipamenak badituzte edo beste arau batzuetara igortzen badute, ez dira eduki gehigarritzat joko. Haatik, jurisprudentzia edo doktrina administratiboaren aipamenak, doktrinaren iruzkinak edo lehiatzailearen ohar pertsonalak dauzkaten bilduma edo testuak ez dira onartuko. Epaimahaiak noiznahi ere aukera izanen du izangaien testuak berrikusi eta kentzeko, lerroalde

honetan xedaturikoari aurka egiten badiote. Kalkulagailua ere erabiltzen ahalko dute.

Nafarroako Ogasuneko kudeatzaile eta ikertzaile laguntzaileen lanpostuetan ari diren izangaiak, 17/2006 Foru Legearen seigarren xedapen gehigarrian araturiko barne igoeraren bidez oposizio honetan parte hartzen badute, lehenengo ariketaren lehenengo zatia eta laugarren ariketa egitetik salbuetsirik daude.

Seigarren ariketa.—Ingeleseko probak. Borondatezko ariketa da eta ez baztertzalea, eta aurreko ariketa guztiak gainditzen dituzten izangaiak egiten ahalko dute. Berariazko igoera txandako izangaien kasuan, aurreko ariketa guztiak, egin behar ez dituztenak izan ezik, gainditzen dituztenek egin dezakete ariketa hau.

Idatzizko eta ahozko proba bana egiten dira, izangaien jakite maila zehazteko.

Proba horiek Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuak prestatuko ditu eta haren emaitza loteslea izanen da epaimahaiarentzat.

6.2. Honelaxe kalifikatuko dira ariketak:

—Lehenengo ariketari dagokionez, edozein taldeetako delarik ere, lehenbiziko zatian gehienez 12 puntu emanen dira. Ariketaren bigarren zatian, berriz, 8 puntu emanen dira gehienez. Beraz, lehenbiziko ariketan lor daitekeen puntuazio altuena 20 puntu izanen da.

Bazterturik geratuko da gutxienez 10 puntu lortzen ez dituen, salbu eta Nafarroako Ogasuneko kudeatzaile eta ikertzaile laguntzaile lanpostuen titularrentzako berariazko igoera txandaren bidez parte hartzen duten izangaien kasuan, bazterturik geratuko baitira ariketa horren bigarren zatian 4 puntu gutxienez lortzen ez dituztenak, lehenengo zatia ez baitute egin behar.

—Bigarren ariketan, edozein taldeetako delarik ere, 20 puntu emanen dira gehienez. Epaimahaiak proposatutako galdera bakoitzari dagokion kalifikazioa 1,25 puntu da gehienez. Izangaia bazterturik geldituko da baldin eta hiru galderatan edo gehiagotan zeroa jartzen bazaio edo ariketan 10 puntura ailegatzen ez bada.

—Hirugarren ariketan, gaietako bakoitzak 5 puntuko kalifikazioa izanen du gehienez. Ariketa honetan, beraz, 20 puntu lortzen ahal dira gehienez. Izangaia bazterturik geldituko da baldin eta ariketa honetan, guztira, 10 puntura ailegatzen ez bada edo gaietakoren batean zeroa jartzen bazaio.

—Laugarren ariketan, gaietako bakoitzari 5 puntu emanen zaizkio gehienez, eta galdera bakoitzari 0,5 puntu gehienez. Beraz, ariketan 20 puntu izanen da puntuazio altuena. Berariazko igoera txandan parte hartzen duten izangaiak aldera batera utzita, izan ere ariketa hau egitetik salbuetsita daude, ariketa honetan 10 puntu lortzen ez dituzten izangaiak baztertuko dira, eta gairen batean edo hiru galderatan edo gehiagotan zero puntu lortzen dutenak ere bai.

—Bosgarren ariketaren zati bakoitzak 10 puntuko kalifikazioa izanen du gehienez eta ariketa osoak, beraz, 20 puntu gehienez. Bazterturik geldituko dira ariketa honetan 10 puntura ailegatzen ez diren izangaiak.

—Seigarren ariketa: 10 puntu gehienez.

6.3. Lehenengo, bigarren, hirugarren, laugarren eta bosgarren ariketak plika sistemaren bidez egiten dira.

6.4. Ariketa bakoitza zuzendu ondoren, epaimahaiak jendaurrean jarriko du, Nafarroako Gobernuaren iragarki oholean eta ariketa egin den tokian, gainditu duten izangaien zerrenda, lortutako kalifikazioekin eta, halaber, hurrengo proba edo ariketa egiteko tokia, eguna eta ordua, gutxienez 48 ordu lehenago.

6.5. Ariketa bakoitzerako dei bakarra egiten da. Izangaiak nortasun agiri nazionala eraman beharko dute edo, bestela, epaimahaiaren iritziz onargarria den beste nortasun agiriren bat. Oposiziotik kanpo geldituko dira agertzen ez direnak edo nortasuna aipatutako agirien bidez frogatzen ez dutenak.

6.6. Hautapen probak egiteko, desgaitasun aitorturen bat dutenentzat bidezkoak diren denbora eta baliabide egokitzapenak egiten dira, eskabidean azaldutakoaren arabera.

7.–Probak gaintu dituztenen zerrenda, izendapen proposamena eta agirien aurkezpena.

7.1. Hautaprobak amaiturik, epaimahaiak jendaurrean jarriko du probak gaintu dituztenen zerrenda, oposizioan lortutako kalifikazioekin, Nafarroako Gobernuaren iragarki oholean. Gero, zerrenda hori Funtzio Publikoaren zuzendari nagusiari igorriko dio, deialdiko lanpostuen kopuruaren barruan sartzen diren eta probak puntuazio altuenekin gaintu dituzten izangaiek izendatzeko proposamenarekin eta espediente osoarekin batera. Proposamena Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da. Zerrenda Interneten bidez ere kontsultatzen ahalko da, www.navarra.es helbidean, Zerbitzuen Katalogoan, Enplegu Publikoaren atalean, deialdiari buruz dagoen aiputik abiatuta.

Puntu berdinketa gertatuz gero, lehenengo ariketan puntu gehien lortzen dituztenen alde joko da eta berdinketak badirau, bigarren, hirugarren eta laugarren ariketetan lorturiko puntuak hartuko dira aintzakotzat, elkarren segidan eta hurrenkera horretan.

7.2. Izendapen proposamena Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoko 30 egun naturaleko epean, proposatutako izangaiek inprimaki berariazko batzuk jaso eta honako agiri hauek aurkeztu behar dituzte Funtzio Publikoaren Zuzendaritza Nagusian:

7.2.1. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko langile finko ez diren izangaiek:

a) Nortasun agiri nazionalaren bi fotokopia konpultsatu, edo izangaiaren nazionalitatea eta nortasuna frogatzen dituen agiri baliokideren batenak.

b) Deialdiko 2.1.c) oinarrian eskatzen den tituluaren fotokopia konpultsatua, titulua lortzeko eskubideak pagatu direla frogatzen duen gordekinarena edo, hala bada, eskaerak aurkezteko epean titulua eskuratzeko moduan dagoela frogatzen duen ziurtagiria.

c) Osasun ziurtagiria, karguaren eginkizunak betetzea eragotziko liokeen akats fisiko nahiz psikiko edo eritasunik ez duela erakusten duena.

Desgaitasunen bat alegatu duten izangaiek, gainera, desgaitasuna deialdiko lanpostuarekin bateragarria dela dioen frogagiria aurkeztu beharko dute, balorazio eta orientazio talde eskudunek emana.

d) Eginkizun publikoetan aritzeko ezgaitua edo gabetua ez egotea eta administrazio publikoren baten zerbitzutik bereizia ez izatea.

e) Zin egin edo hitz ematea, Nafarroako Foru Eraentza errespetatu, Konstituzioari eta legeei men egin eta karguari dagozkion eginkizunak zuzen beteko dituela.

Deialdi hau egin ez duen Nafarroako beste administrazio publikoren bateko langile finkoek edo Nafarroako Foru Komunitateari transferitutako Justizia Administrazioako zerbitzuei atxikitako langile finkoek, gainera, beste ziurtagiri bat aurkeztu beharko dute, aurreko administrazioko espediente pertsonalean ageri diren inguruabar eta aurrekari guztiak frogatzeko, hots, sarrerari, antzinasunari, mailari, egoera administratiboari eta abarri buruzko guztiak.

7.2.2. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren edo haren erakunde autonomoen zerbitzuko langile finkoak diren izangaiek:

a) Deialdiaren 2.1.1.c) oinarrian eskatzen den tituluaren fotokopia konpultsatua, edo hura lortzeko eskubideak pagatu direla frogatzen duen gordekinarena, edo, hala bada, eskubideak aurkezteko epean titulua eskuratzeko moduan dagoela frogatzen duen agiria.

Desgaitasunen bat alegatu duten izangaiek, gainera, desgaitasuna deialdiko lanpostuarekin bateragarria dela dioen frogagiria aurkeztu beharko dute, balorazio eta orientazio talde eskudunek emana.

7.3. Aipatu epearen barruan, eta aski justifikaturik dauden ezinbesteko kasuetan izan ezik, arestiko agiriak aurkezten ez dituztenak ezin izanen dira izendatu, eta ordura arteko egintza guztiak baliorik gabe geldituko dira, beren eskabidearen faltukeria dela-eta legokiekeen erantzukizuna galarazi gabe.

7.4. Aurreko atalean aurreikusitakoa gertatuz gero, Funtzio Publikoaren zuzendari nagusiak probak gaintu dituztenen zerrendan, 7.1 atalean aipatutakoan, hurrengo den izangaiarekin beteko du baja, eta horrekin ere aurreko ataletan adierazitako moduan jokatu da.

7.5. Deialdiaren xede den lanposturako izendatua izateko beharrezko betebeharrak baldintzez gain, Funtzio Publikoaren Zuzendaritza Nagusiak, bere eskudantziak erabiltzeko, beste edozein agiri eskatu diezaiotke proposatutako izangaiari, eta honek aurkeztu beharko du deialdi honen 7.2. oinarrian ezarritako moduan.

8.–Lanpostu hutsak hautatzea.

8.1. Aurreko oinarrian xedatu dena betetzen duten izangaiek Funtzio Publikoaren Zuzendaritza Nagusiak hartarako jartzen dien epean aditzera eman beharko dute eskaintzen zaizkien lanpostuetatik zein hautatzen duten. Aukeratu beharreko lanpostuak hasieran deitutakoak izanen dira, edo beste batzuk, zerbitzuaren beharrei jarraiek horiek aldatzea erabakitzen bada.

8.2. Lanpostu hutsak aukeratzeko, %33ko desgaitasun aitortua edo handiagoa duten izangaiek lehentasuna izanen dute gainerako izangaien aurretik, kontuan hartu gabe zein txandaren bidez parte hartu duten.

Hala izanagatik ere, desgaitasuna duen izangairik bada, eta horrek eragina badu lanpostu bat edo bestea hautatzeko, aukeratzeko hasi aurretik, desgaitasunarekin hobekien egokitzen direnak esleituko zaizkie, horren gainean balorazio eta orientazio talde eskudunek egiten duten txostenaren arabera.

8.3. Hautaprobak igoera txandaren bidez gaintuzten dituzten izangaiek, aurreko idatz-zatia aipatutako kasuan izan ezik, lehentasuna izanen dute deialdiko lanpostu hutsak aukeratzeko txanda irekiko izangaien aurretik eta, igoera txandan berean, lanpostu hutsak aukeratzeko lehentasuna izanen dute 17/2006 Foru Legearen seigarren xedapen gehigarrian arauturiko berariazko igoera txandaren bidez lanpostua lortzen duten izangaiek.

9.–Izendapena, lanpostu hutsen esleipena eta jabetza hartzea.

9.1. Funtzio Publikoaren zuzendari nagusiak, ebazpen baten bitartez, aurreko oinarrietan ezarritakoa betetzen duten izangaiek Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioako funtzionario izendatuko ditu, Ogasuneko teknikari lanetan aritzeko. Ebazpen horren bidez lanpostuen esleipena ere egingen da.

9.2. Izendapenak eta lanpostuaren jabetza hartzeak nomina eta plantillako funtzionario bilakatuko ditu izendatuak, eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioako funtzionarioen arloan indarra duten xedapenetan ezarri diren eskubide eta betebeharrak guztiak izanen dituzte. Gizarte Segurantzako araubide orokorrean afiliatuko dira, araubide horretan ezarritakoaren babesean.

Aurrekoa gorabehera, Nafarroako Administrazio Publikoaren Zerbitzuko Langileen Estatutua onetsi zuen abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren bederatzigarren xedapen gehigarriaren 3. puntuan xedatutakoa aplikatzearen ondorioz, Nafarroako administrazio publikoaren edozein montepioaren eskubide pasiboetan sarturik daudenean bi aukera izanen dituzte: Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren montepioan segitzea, martxoaren 5eko 10/2003 Foru Legearen bidezko eskubide pasiboaren araubideak babesturik, edo Gizarte Segurantzaren Araubide Orokorrean sartzea.

9.3. Lanaldia zerbitzuaren beharretara egokituko da eta noiznahi aldatzen ahalko dute administrazio organo eskudunek, aplikatzeko den araudian ezarritakoarekin bat.

9.4. Funtzionarioek bizilekua destinoko herrian ez izateak ez du alde batera uzten lantokira puntual iritsi beharra eta lanaldia eta lanpostuko eginkizunak zuzen bete beharra eta, gainera, ez da inolako konpentsaziorik jasoko lantokirako joan-etorriengatik.

Behar bezala justifikatutako kasu batzuetan, administrazio publikoek zilegi izanen dute funtzionarioei destinoko herrian bizi daitezela eskatzea, lanpostuko eginkizunengatik eta eskatzen den dedikazioengatik bidezkoa denean.

9.5. Izendapena Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu-ko da eta izangai izendatuek hilabeteko epean jabetu beharko dute lanpostuez, izendapenaren jakinarazpenetik kontatzen hasita.

Aipatutako epean eta ezinbesteko kasuetan izan ezik, izangairen bat lanpostuaren jabe egiten ez bada, Foru Komunitateko Administrazioaren funtzionario izateko eskubide guztiak galduko ditu. Hala gertatzen bada, deialdiaren 7.4 atalean ezarritakoari jarraikiko zaio.

9.6. Izangai bat funtzionario bihurtu eta lanpostuan batere aritu gabe, zuzenean eta berak eskatuta, indarreko arudian ezarritako kasuetan, borondatezko eszedentzia ematen bazaio jabetza hartzearen egunetik beretik, kasuko lanpostu hutsa ere deialdiaren 7.4 atalak agintzen duen moduan beteko da.

9.7. Aurreko bi ataletan aipatutako kasuetan, izendapena egin aurretik hautaturiko lanpostua ez da aldatuko. Beraz, funtzionario berriei, zuzenean, egoera horien ondoriozko lanpostuak esleituko zaizkie.

10.–Errekurtsoak.

Epaimahaiaren egintza eta ebazpenen kontra gora jotzeko errekurtsua aurkezten ahal da, Funtzio Publikoaren zuzendari nagusiari zuzendua, errekurtsuaren xedeko egintza argitaratu edo jakinarazi eta biharamunetik hilabeteko epean.

Deialdiaren, oinarrien eta horiek aplikatzeko egintzen kontra, epaimahaiak hartutakoen kontra izan ezik, zilegi izanen da gora jotzeko errekurtsua jartzea, Lehendakaritza, Justizia eta Barneko kontseilariari zuzendua, errekurtsuaren xedeko egintza argitaratu edo jakinarazi eta biharamunetik hasita hilabeteko epean.

Hori guztia Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari buruzko abenduaren 3ko 15/2004 Foru Legearen 57. artikuluan eta urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatutako Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 114. eta 115. artikuluetan xedatutakoari jarraikiz.

Iruñean, 2013ko urriaren 23an.–Funtzio Publikoaren zuzendari nagusia, Gregorio Eguílaz Gogorza.

I. ERANSKINA • ESKABIDEA

Hautaprobetan onartua izateko eskabidea

Deialdiaren datuak.

Lanpostua: OGASUNeko TEKNIKARIA
Deialdia Nafarroako Aldizkari Ofizialaren zein zenbakitan argitaratu zen: 222 Data: 2013-11-18

Sartzeko txanda.

Txanda irekia	<input type="checkbox"/>	Igoera txanda*	<input type="checkbox"/>	Elbarrientzako erreserba txanda*	<input type="checkbox"/>
---------------	--------------------------	----------------	--------------------------	----------------------------------	--------------------------

Datu pertsonalak.

Izen-deiturak:		
NANA edo agiri baliokidea:		Jaioteguna:
Jaioterria:	()	Nazionalitatea:
Helbidea:		
Herria:	Probintzia:	Posta kodea:
Sakelako telefonoa:		2. telefonoa:
Helbide elektronikoa:		

Eransten ditudan agiriak.

Desgaitasunaren frogagiria	<input type="checkbox"/>	Beste orri batean eskatu dut denbora edo baliabideak ego-kitzea	<input type="checkbox"/>	Euskara agiria edo baliokidea*	<input type="checkbox"/>
----------------------------	--------------------------	---	--------------------------	--------------------------------	--------------------------

Honako proba hau eskatzen dut.

Euskara*	<input type="checkbox"/>	Ingelesa*	<input type="checkbox"/>	Frantsesa*	<input type="checkbox"/>
----------	--------------------------	-----------	--------------------------	------------	--------------------------

Sinatzaileak ESKAERA egiten du eskabide honetan adierazitako prozesuan onartua izan dadin eta ADIERAZTEN DU, erantzukizuna berea izanik, bertan agertzen diren datu guztiak egiazkoak direla, deialdiaren oinarrian eskatutako betebeharrak guztiak betetzen dituela eta datu horiek guztiak agiriaren bidez frogatzeko konpromisoa hartzen duela.

(Sinadura)

.....(e)n, 20.....(e)koaren(e)an.

FUNTZIO PUBLIKOAREN ZUZENDARI NAGUSIA. LEHENDAKARITZA, JUSTIZIA ETA BARNE DEPARTAMENTUA.

* Deialdiaren oinarrietan xedatutakoari jarraikiz.

Oharra: Datuen babesari buruzko 15/1999 Lege Organikoan ezarritakoaren arabera, adierazten dugu datu-fitxategi automatizatu batean sartuko direla, bai idazki honetan jasotako datuak, bai aurrerantzean beharrezkoak izango direnak Administrazioarekiko harremanerako. Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuari dagokio datu horiek zuzen erabiltzea eta konfidetziatasuna bermatzea. Lege horren arabera, datuen jabeak eskubidea du noiz-nahi datuetara iristeko, zuzentzeko, ezabatzeko eta horien aurka egiteko.

I. BIS ERANSKINA • (TALDEA HAUTATZEA)

Nafarroako Gobernua Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentua.

Izena:, adinez nagusia,
Nortasun Agiri Nazionalaren zenbakia:, jaioteguna:, jaioterria: (.....),
nazionalitatea: gaur eguneko helbidea:, (.....), kalea:,
posta kodea:, telefonoa:....., laneko telefonoa:

ADIERAZTEN DU:

Ogasuneko teknikarien lanpostu batzuk betetzeko oposizioko hautapen probak egitea eskatzen dudala,
modalitate honetan:

(adierazi bidezko dena)

Lehenbiziko taldea.

Bigarren taldea.

Horiek horrela,

Eskabide hau ontzat hartzea eta aipatu modalitatean onartua izatea eskatzen dut.

Iruñean,(e)koaren(e)an.
(Sinadura)

II. ERANSKINA - GAI ZERRENDA

Lehenengo ariketa

I.–Kontabilitatea:

- Finantzen kontabilitatea.
- Kontabilitateko plan orokorra.
- Sozietateen kontabilitatea.
- Kontabilitate analitikoak.
- Finantza egoeren azterketa.

II.–Finantzetako matematika:

- Kapitalizazio bakuna eta konposatua.
- Errenta iraunkorrak, aldakorak eta zatituak.
- Maileguen eta jesapenen amortizazioa.
- Eragiketak balore higigarriekin.

III.–Irizpen juridikoaren xede izan daitezkeen gaiak:

A) Zuzenbide zibila:

I.–Zuzenbidearen iturriak. Arau juridikoen aplikazioa eta ondorioak.

II.–Pertsona fisikoa. Ahalmena. Adina, nazionalitatea, auzotasuna, ezkontza eta ahaidetasuna. Pertsona juridikoa: ahalmena, helbidea, nazionalitatea, organoak, ondarea eta azkentzea.

III.–Ondasunen araubidea ezkontzan.

IV.–Jabetza eskubidea. Jalaria eskuratzea ea galtzea. Ondasun-erkidegoa. Gozamena. Berme eskubide erreala.

V.–Betebeharra. Obligazioen iturriak. Betebehar mankomunatuak eta solidarioak. Betebehar hutsak, baldintzazkoak eta epe jakinerakoak. Obligazioak azkentzea. Betebeharren proba.

VI.–Kontrata: elementuak eta baldintzak. Kontratuaren eraketa, burutzea, gauzatzea, ondorioak eta interpretazioa. Salerosketa kontratua. Dohaintza kontratua. Sozietate kontratua. Errentamenduak. Mailegua. Fidantza.

VII.–Denboraren eragina harreman juridikoetan. Preskripzioa eta iraungipena.

VIII.–Oinordetza Nafarroako foru zuzenbide zibilean.

Arestian aipatutako gaiak, bestela azaltzen ez den bitartean, hala zuzenbide zibil arruntari nola Nafarroako foru zuzenbide zibilar buruzkoak dira.

B) Merkataritza zuzenbidea:

I.–Merkataritza zuzenbidearen iturriak.

II.–Merkataritza enpresa trafikoko juridikoaren xede den aldetik. Merkataritza enpresen kontabilitatea.

III.–Banakako merkataria. Gaitasuna. Ezkontza eta merkataritza jarduteko gaitasuna. Merkataritza sozietateen kontratua. Merkataritza sozietateen nazionalitatea eta helbidea. Merkataritza sozietateen desegitea eta likidazioa.

IV.–Merkataritza sozietateak.

V.–Merkataritza betebeharrak. Merkataritza kontratuak: burutzea, modua, proba eta interpretazioa. Salerosketa kontratua.

C) Administrazio Zuzenbidea:

I.–Administrazio Zuzenbidearen iturriak. Legea. Erregelamenduak.

II.–Administrazio egintzak.

III.–Administrazio prozedura:

IV.–Administrazio egintzen berrikuspena.

D) Nafarroako tributuei buruzko legeria:

I.–1990eko uztailaren 31ko Hitzarmen Ekonomikoa, 2003ko urtarrilaren 22ko Eguneratze Akordioaren arabera eta 2007ko azaroaren 5eko Akordioaren arabera.

II.–Tributuei buruzko Foru Lege Orokorra eta hura garatzeko erregelamenduak.

III.–Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga.

IV.–Sozietateen gaineko zerga.

V.–Oinordekotzen eta dohaintzen gaineko zerga.

VI.–Ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zerga.

VII.–Balio erantsiaren gaineko zerga.

VIII.–Zerga bereziak.

IX.–Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren tributu arloko egintzen berrikuspena.

Bigarren ariketa

Lehenengo taldea (arlotan ekonomikoa).

–Ekonomia orokorra.

1. gaia.–Ondasunen urritasuna eta hautaketa. Ekonomia kontzeptua. Ekonomia gizarte zientzia den aldetik. Ekonomia positiboa eta arau-emailea. Jarduera ekonomikoa. Teoria eta politika ekonomikoa. Sistema ekonomikoa. Eredu ekonomikoa: errentaren fluxu zirkularra. Mikroekonomia eta makroekonomia.

2. gaia.–Merkatua. Eskaria eta eskaintza. Eskariaren eta eskaintzaren kurbak eta haien gorabeherak. Merkatuaren oreka eta desoreka. Merkatu motak.

3. gaia.–Erabilgarritasuna. Aurrekontuen murrizketa. Eskariaren kurba eta aurrekontua. Eskariaren eta eskaintzaren malgutasuna.

4. gaia.–Ekoizpena eta enpresen etekinik handiena. Produktibitatea eta epe laburrerako kostuak. Ekoizpena eta epe luzerako kostuak. Lehiaren oreka.

5. gaia.–Lehia akastuna: lehia monopolistikoa, oligopolioa eta monopolioa. Botere publikoak eta lehia.

6. gaia.–Helburu eta adierazle makroekonomikoa: produktu nazionala, kontsumoa eta inbertsioa, gastu nazionala. Produktu nazional gordina eta produktu nazional garbia. Errenta nazionala eta errenta eskuragarria. Magnitude agregatuak eta errentaren fluxu zirkularra.

7. gaia.–Oreka-errenta sektore publikorik gabeko ekonomia itxi batean: biderkatzailea. Oreka-errenta sektore publikoa duen ekonomia itxi batean: Oreka-errenta sektore publikoa duen ekonomia ireki batean.

8. gaia.–Dirua. Diru-agregatuak. Diru eskaria. Diru oinarria eta diruaren sorrera. Finantza sistema.

9. gaia.–Oreka merkatu errealean eta diru merkatuan. IS-LM eredu. Politika fiskala eta moneta arloko politika.

10. gaia.–Eskaintza eta eskari agregatuaren eredu. Eskari agregatua, interes tasa eta prezioen maila. Eskaintza agregatua eredu klasikoan eta Keynes-en ereduaren.

11. gaia.–Inflazioa eta langabezia: zergatiak eta ondorioak. Politika ekonomikoen ikuspegiak. Ziklo ekonomikoa.

12. gaia.–Nazioarteko merkataritza: abantaila konparatiboaren legea eta Heckscher-Ohlin eredu. Nazioarteko merkatuaren murrizketak. Merkataritza librea protekzionismoaren aldean. Integrazio ekonomikoa.

13. gaia.–Ordainketen balantza: kontzeptua eta osagarriak, funtzionamendua eta saldoak. Kanbio tasak eta dibisa merkatuak. Nazioarteko finantza erakundeak.

14. gaia.–Hazkundera eta garapena. Hazkunde ekonomikoa azaltzen duten teoriak. Hazkundearen onurak eta kostuak. Garapena eta azpi-garapena.

15. gaia.–Lehen sektorearen egoera Espainian. Sektore horretarako politika ekonomikoa. Industria, energia eta eraikuntza sektoreak Espainian. Sektore horretarako politika. Zerbitzuen sektorea Espainian (finantzen sektorea izan ezik). Sektore horretarako politika.

16. gaia.–Gizarte babeserako politika Espainian. Pentsioak. Langabeziarako babesa. Osasun politika.

17. artikulua.–Hezkuntzarako eta prestakuntza etengabeko politika. Herri lanetarako politika. Garraioetarako politika. Etxebizitzarako politika.

–Enpresaren Ekonomia.

18. gaia.–Antolaketak. Definizioa, motak eta antolaketa teoriak. Antolaketa eredu nagusiak.

19. gaia.–Egiturazko antolaketa. Harremanak eta komunikazioak antolaketa. Agintaritzak: agintaritzaren zentralizazioa edo dezentralizazioa. Erantzukizuna. Taldekako lana: alde onak eta txarrak. Giza baliabideetarako politika.

20. gaia.–Enpresa erakundea den aldetik. Erakunde-esparrua. Kontzeptua, errealitatea, ekonomia eta ingurunea. Enpresa motak eta sailkapen irizpideak. Enpresa eta merkata.

21. gaia.–Enpresa publikoa. Enpresa publikoaren helburuak. Enpresa publikoa kontrolatzeko sistema. Enpresa publikoaren finantzaketa.

22. gaia.–Enpresaren helburuak. Zuzendu eta kudeatzeko sistemak. Enpresak kudeatzeko metodo matematikoak. PERT eta CPM metodoak. Stocken kudeaketa. Enpresa planifikatzea eta helburuak ezartzea.

23. gaia.–Enpresaren kontrol sistemak. Kontzeptua. Elementuak. Kontrol sistema nagusiak. Kontrolerako prozesua. Zuzeneko kontrola. Eraginkortasuna eta efizientzia kontrolatzeko neurriak diren aldetik.

24. gaia.–Enpresaren erabakiak eta erabakiak hartzeko sistemak: kontzeptuak eta motak. Erabakiak hartzeko prozesua.

25. gaia.–Harremanak enpresan. Informazio sistemak. Informazio fluxua eta komunikazioa. Informazioa erabiltzea.

26. gaia.–Enpresaren egitura ekonomiko eta finantzariora. Enpresa finantzatzeko diru-sarrerak. Finantza oreka. Inbertsioen eta finantzaketan arteko oreka.

27. gaia.–Inbertsioa enpresan: kontzeptua eta motak. Inbertsio proiektuen balorazioa eta hautaketa. Inbertsioa kapital-ondasunetan. Ekipoak berritzeko erabakiak. Aktibo zirkulatzaileetako inbertsioa. Esku-dirua.

28. gaia.–Enpresaren egitura finantziarioaren finantzaketa: autofinantzaketa. Amortizatorako funtsak. Epe labur, ertain eta luzerako kreditua. Zorpetzea.

29. gaia.–Enpresaren kanpo finantzaketa: haren kostua. Enpresaren finantzaketa nazioarteko merkatu finantziarioetan. Enpresarendako egitura finantziario hoberena. Enpresaren mozkinak. Mozkinen erlatibotasuna.

30. gaia.–Ekoizpen prozesua. Ekoizpenerako printzipio eta ereduak. Produktuaren kostua. Ustiatzeko gutxiena eta ustiatzeko hoberena. Kostuen kontrola. Azpiproduktuen kostua.

31. gaia.–Produktuaren politika (I). Eskariaren ebaluazioa eta merkatuaren ikerlanak. Produktuaren merkaturatzea. Prezioen politika. Prezioen gorabeherak eta haien ondorioak.

32. gaia.–Produktuaren politika (II). Produktuaren banaketa. Banaketa-kanalak.

–Merkataritza zuzenbidea.

33. gaia.–Merkataritza zuzenbidearen edukia. Merkataritzaren egintza. Merkataritzaren egintzak analogiaren bidez. Egintza mistoak. Merkataritzako enpresa. Merkataritza zuzenbidearen iturriak.

34. gaia.–Merkatariaren kontzeptua, doktrinaren eta legeen aldetik. Banakako merkataria. Desgaitasunak eta debekuak. Atzerriko merkataria. Ohikotasuna eta profesionaltasuna. Publizitatea merkataritza zuzenbidean. Merkataritza Erregistroa.

35. gaia.–Enpresaburuaren kontabilitatea. Liburuak. Baldintzak. Kontserbazioa. Liburuaren balioa frogatzea eta haien aitortza. Urteko kontuak.

